**LAN ETA JUSTIZIA SAILA**
Justizia Sailburuordetza
*Justizia Administrazioko Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA**
Viceconsejería de Justicia
*Dirección de la Administración de Justicia*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# KONTINGENTE BERRIA

Une honetan, Langilearen Atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionarioek, lanean emandako denboraren arabera, kontingente hauek ditu jasota atal hauetan:

"Ordutegi-plangintza"

"Denbora-zenbaketak"

"Oporrak"
"Norberaren eginkizunak"
"Gehiegizko orduak"
"Antzinatasun egunak, Norberaren eginkizunetarako"
"Opor-egunak antzinatasunagatik"

Baimen horien izapidetza eta kudeaketa sinplifikatzeko eta errazteko, komenigarritzat jo da horietako batzuk beste kontingente batzuetan biltzea. Une honetan, honako hauek biltzen hasiak gara:

O "Gehiegizko orduak"
O "Norberaren eginkizunak"

Horren ondorioz, "**Baimenak hartzea**" kontingente berria sortu da.

Kontingente berri hori, adierazi den bezala, aipatutako bien batura da, eta horrek ez du inolako aldaketarik ekarriko funtzionarioei dagozkien orduen kopuruan. Hala ere, uste dugu komenigarria dela bi kontzeptuak elkartzea oporrak hartzeko eskaerari dagokionez; izan ere, une horretatik aurrera ez da beharrezkoa izango ordu horiek bereizita eskatzea, eskubidea arrazoi batengatik edo beste batengatik sortzen dela ere.

Horrela ikusten da orain:




Horrela ikusiko da:




Azken kontingente horren eskaera Langilearen Atariaren bidez egin beharko da; **2020ko otsailaren 19tik aurrera**, beraz, une horretatik aurrera ez dira kontuan hartuko faxez, postaz edo Langilearen Ataria ez den beste edozein bitartekoz bidaltzen diren "Baimenak hartzea" eskaerak.

Era berean, funtzionarioek baimen horietakoren bat, eskatu ondoren, aldatzeko izapideak egin ahal izan ditzaten, Langilearen Atarian beste aukera bat gehitu da, "Hartutako baimenak ezabatzea" izenekoa, eskatutako baimenak baliogabetzea eskatzeko aukera emango duena.

Gainera, "Geratzen den saldoa eta/edo arratsaldeak hartzea (lanaldi zatitua duten langileentzat)" izeneko beste aukera bat gehitzen da, eta, hala badagokio, geratzen den saldoa nola hartu nahi den adieraziko da.

Honekin batera eransten da prozedura bistaratzen duen pantaila-irudia:

